


# BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

## Komunikazioa:

Gure bezeroek gurekin harremanetan jartzeko hainbat aukera ditugu. Lehen zerbitzua dendan izango dugun **telefono finkoaren** bidez egingo dugu, eta gure dendako ordutegian erabiliko dugu. Horrez gain, gure **sakelako telefonoa** izango dugu, ezarritako ordutegitik kanpo gurekin kontaktuan jartzeko. Bestalde, **gmailaren** aukera zabalduko dugu, gurekin beste era batera hitz egin ahal izateko. Eta azkenik, gure negozioari buruzko informazio gehiago jakin nahi baduzu, gure **sare sozialak** kontsulta ditzakezu, non agertuko diren: produktuak, eskaintzak... Gure bezeroekin komunikatzeko daukagun modu hobereana Instagram da. Sare sozial honekin gure denda eta dendan aurkitu ahal diren produktuak aurkeztuko ditugu. Modu honetan ere perstona gehiago gure enpresa ezagutuko dute. @onanlowcost Instagrammen.



## Banaketa:

Banaketaren bidez, gure produktuak merkatuaren eskura jartzea ditugu, kontsumitzaileek eskatzen duten kopuruan, behar duten momentuan eta nahi duten gunean.

Gure kasuan, produktuak ekoizlearengandik kontsumitzailearengana iristeko erabiltzen dugun bidea kanpoko kanala da. Hau da, gure enpresaren kanpo dagoen pertsona batek produktuak ekoizten ditu, eta guk produktu horiek erosten ditugu gero gure saltokian gure bezeroei saltzeko. Modu honetan, erosleak gure dendara etortzen dira, eta horrela gu informazioa eta aholkuak eskaintzen dizkiegu erosleei.

Saltokia Leioako Sabino Arana kaleko 80 zenbakiak kokatutako lokalean dago. Kokapena aukeratzeko orduan ikusgarria, hau da jendea paseatzen eta bitzita egiten duen zonalde batean izatea nahi genuen. Kontsumitzaileen erosotasuna ere lehenetsi zen eta autobus geltokitik gertu apropos iruditu zitzaigun.

Era berean, erabiltzen dugun kanal mota kanal luzea da, bitartekari kopurua handia delako. Guk produktuak hornitzaileei erosi ondoren, aukeratu dugun garraio enpresa Correos Express da.

